

**EBAZPENA, 2022ko APIRILAREN 29koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, 2022ko ABUZTUKO HAINBAT ALDITAN UPV/EHU IXTEA EZARTZEN DUENA.**

---

EHU2030 agendaren Planeta campusa ekimenean jasota dagoenez, Euskal Herriko Unibertsitateak garapen jasagarria, inklusioa eta konpromiso soziala sustatzen ditu, Garapen Iraunkorraren inguruko elkarlanari bultzada emanaz (uraren kontsumoa, energia, hondakinen kudeaketa eta garraioa).

Bestalde, ezin dugu ahaztu energia-horniduraren prezioen igoera, aurtengo lehen hilabeteetan izugarri areagotu baita.

Arrazoi horiek guztiek, Estatuko unibertsitate publiko gehienak egiten ari diren bezala, energia-kontsumoa aurrezteko neurriak hartzera garamatzate, baita oporraldietan itxiera-politika koherentea egitera ere, eta horixe da ebazpen honetan zehazten dena.

Egitura eta unitate akademiko eta administratiboetako arduradunei eta Unibertsitate honetan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen ordezkariari kontsulta egin ondoren,

## **EBATZI DUT**

### **Lehenengoa. - Itxiera-aldia**

Itxiera-aldiak honako hauek izango dira:

- Araba: 2022ko abuztuaren 1etik 15era.
- Gipuzkoa: 2022ko abuztuaren 8tik 21era.
- Bizkaia: 2022ko abuztuaren 15etik 28ra.

### **Bigarrena. - Itxieraren irismena**

Campus bakoitzeko itxiera-aldiak instalazio eta eraikin guztiak hartuko ditu, baita bertan ematen diren zerbitzuak ere. Hortaz, itxita egongo dira eraikinetako gune guztiak eta bertan ezingo da jarduerarik gauzatu, salbu hurrengo ebazpen-zatian adierazitakoak.

Bertan behera geratuko dira programatutako jarduera guztiak, probak eta oposizioak barne. Zentro eta zerbitzuetako zuzendaritzek itxieraren berri emango diete Unibertsitateko guneetan jarduerak aurreikusita dituzten pertsona edo erakundeei.

Egoitza Elektronikoa martxan egongo da.

## Hirugarrena. - Funtsezko zerbitzuak

Funtzionamenduan egongo diren zerbitzuak honako hauek izango dira:

**a. Erregistroa:** abuztuan zentroak itxita dauden bitartean, UPV/EHUren erregistro elektronikoa aurkeztu ahal izango dira eskabideak, helbide honetan: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Horretarako, UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria erabili beharko dira.

Data bakoitzean itxita ez dauden UPV/EHUko erregistro-arloko laguntza-bulegoetara ere jo ahal izango da.

Eskabideak, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu ahal izango dira.

**b. Laborategiak eta Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGIker):** bigarren ebazpen-zatian ezarritakoaren ondorioz, zerbitzu kritikoak bakarrik egongo dira martxan

**c. Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia.**

**d.** UPV/EHUk egiturazko zerbitzuak emango ditu, hala nola nominak eta Gizarte Segurantza, IKTak, Nazioarteko Harremanen Bulegoa eta Help Center-ak, laguntza juridikoa eta legezkoa, ikerketako kudeaketa eta beste batzuk.

Gainera, langileren baten (AZP edo IIP) laguntza puntuala behar dela uste duten unitateetako arduradunek izendatuko dituzte langileok, aurretik behar bezala justifikatuta. Gerentziak edo Irakasle-Ikertzaile arloko Errektoreordetzak emango du baimena, hala badagokio.

Baimendutako langileak (IIP edo AZP) unibertsitate-txartela erabili beharko du dagokion eraikinerantz sartzeko.

## Laugarrena. - AZPren oporrak

Administrazio eta zerbitzuetako langileen oporrak ezarritako itxiera-datetara egokituko dira, 2022rako Lanaldi eta ordutegiari buruzko zirkularrean jasotakoaren arabera; hori guztia, funtsezko zerbitzu-premiei kalterik egin gabe. Hala ere, langileen salbuespenezko egoerak aztertuko dira. Horrelakorik azaltzeko, mezu elektronikoa bidali beharko da [infopas@ehu.eus](mailto:infopas@ehu.eus) helbidera, dagozkion azalpenak emanez.

**Bosgarrena.** - Lehenengo ebazpen-zatian adierazitako itxiera-aldietan langileek, administrazio eta zerbitzuetakoek eta baita irakasle-ikertzaileek, salbuespenez sartu ahal izateko, hurrengo erabakian ezarritakoa bete beharko dute: Erabakia, 2015eko ekainaren 1ekoa, UPV/EHUko gerenteari, argitara emateko "prebentzio neurri osagarriak ikastegiak ordutegiz kanpo zabaltzen direnean larrialdiren bat

dagoenerako" izeneko prozedura, prebentzioaren kudeaketa sistemako prozeduren eskuliburuko 5. Prozeduraren ("larrialdien kudeaketa" izenekoaren) V. eraskinean jasotakoa.

Ondorio horietarako eta, edonola ere, salbuespenezko sarbide horretarako eskabide normalizatuak campus bakoitza itxi baino gutxienez 15 egun lehenago egin eta bidali beharko dira. Epez kanpoko eskaerei ez zaie erantzungo.

**Seigarrena.** - Ebazpen hau UPV/EHUren webgunean argitaratuko da eta langile gutiei jakinaraziko zaie posta zerrenden bitartez.

Leioan, 2022ko apirilaren 29an

Eva Ferreira García  
Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea